

### PSE-EEK sistema eleanitza proposatu du hizkuntz ereduakiko

**PSE-EEK** hizkuntz ereduari buruz proposatutako sistemak euskara, gaztelania eta ingelesa hartzen ditu kontuan. Isabel Zelaa PSE-EEko Gizarte Politiken idazkariaren iritziz, elebitasun orekatua bermatzen du proposamenak. Alabaina, alderdiak aurkeztu duen portzentaia-dantza ikusi eta batuketak eginda, berme hori airean dagoela begibistakoa da: eskolek, nahi izanez gero, haur hezkuntzan %70-75 irakats ahalko lukete gaztelaniaz, Lehen Hezkuntzan %60ra irits daiteke portzentaia eta Bigarren Hezkuntzan %53ra.

### Euskarazoak bloga

**EUSKARA IKASTEN ARI DEN BATEK** hasi du Euskarazoak izeneko bloga. Euskara ikasten segi nahi du eta euskaltegira joateko modurik ez duenez, HABEren

Boga programa erabiltzen du, eta duela egun gutxi bloga jarri du abian, zertarako eta euskaraz idazten praktikatzeko. Euskararekin dituen “arazoak” deskargatzen joatea da bere helburua, ikasten ari den seinale, eta horretarako denoi eskertuko digu blogean idatzitako zuzentzen laguntzen badiogu. [www.blogak.com/euskarazoak/](http://www.blogak.com/euskarazoak/)

### Eusko Jaurlaritzaren ziurtagiria abian da

**EUSKO JAURLARITZAKO** Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak sortua du lan esparrurako ziurtagiria. Orain aurkeztu dute enpresetan kalitatea, bikaintasuna eta berrikuntza euskararekin lotzen dituen ziurtagiri ofizial eta publikoaren Kudeaketa Batzorde Nagusia. Batzorde hori erakunde publikoek eta Confebask, Adegi, Cebek eta SEA enpresari elkarteek osatuko dute. Lehen zereginetako bat urtean zehar tamaina eta jarduera guztietako enpresetan

sei esperientzia aitzindari abian jarritzea izango da.

### Herri euskaldunenak Mutriku eta Markina

**EUSTATEK** *Udal-adierazleak 2006* txostena aurkeztu du eta hor agerienez, Mutriku eta Markina-Xemeinen euskaldunen portzentaia %85era helden da, EAEko portzentaia altuena. Hiriburuei dagokionez, Donostian 60.415 euskal hiztun bizi dira, Bilbon 53.051 eta Gasteizen 31.482. Donostian hiru lagunetik batek hitz egiten du euskaraz. Bilbon eta Gasteizen, zazpitik batek.

### Irulegiko Irratia diru bilketan

**URTERO BEZALA**, diru bilketa egingo du hiru astez Donibane Garaziko irratia entzuleen artean. Diru horrekin aurrekontuaren laurdena baino gehiago bete ohi du.

### BAHEA

Hizkuntz ereduaren sistema dela-eta, Euskadiko Eskola Kontseiluari erantzunez, Julen Etxeberria Sortzen-Ikasbatuaz elkarteko koordinatzaileak *Berrian* esanak: “Eredu bakarrak malgua eta autonomia izan behar du, bai, baina gutxienez D ereduaren mailatik gorakoa, D ereduak ere askotan ez baitu ikaslea euskalduntzen. (...) Euskadiko Eskolako Kontseiluaren proposamena indarrean jarritz gero, gerta daiteke emaitzak leku batean eta bestean ezberdinak izatea. Horregatik, Administrazioaren funtzioa ezinbestekoa da, berak kontrolatu behar baitu hori”.

Jon Urrusolo Eskolak Euskaldundu ekimeneko LAB Irakaskuntzako ordezkariak *Berrian* esanak: “Zoritzarrez, uste dut PSE-EEren inguruko sektoreak pozik uztera joko duela [Hezkuntza Sailak]. Euskadiko Eskola Kontseiluaren proposamenak horretarako aukera eskaintzen dio”.

## Gasteiz 1976 eta Fraga

Aste honetan, martxoaren 3an, 31 urte beteko dira Manuel Fragak politikoki zuzenduta Espainiako polizia nazionalak Gasteizen sarraskia eragin zuela. Fraga, gaur egun PPko ohorezko presidentea, garai hartan Francoren diktaduraren zerbitzura zegoen. Gasteizko langileen borroka hartako espirtuaren bereizgarriak izan ziren elkartasuna, batasuna, langileek ordezkariak askatasun osoz eta demokratikoki aukeratu ahal izatea eta batzarren erabakitze boterea. Patroiek eta bere zerbitzura dagoen Estatuak ezin zuten onartu borroka eredu horrek iraun zezan eta errotik moztu nahi izan zuten langile, emakume eta herritarrak biltzen jakin zuen hasierako mugimendu hura. Bilduta zeuden, hain justu, Fragak San Frantzisko Eliza tiroka hustu zezaten agindu zuenean. Ondorioz,

bost langile hil, hainbat zauritu eta beste hainbat atxilotu zituzten. Ordudanik, euren senideak eta lagunak justizia eske dabilta: arduradunei –zenbaitzuk, Fraga bezala, oraindik ere jardunean– erantzukizun penal eta politikoak eskatuz eta biktimak onar ditzatela eskatuz. Hogeita hamaika urte geroago, erantzukizun horiek oraindik ez dira argitu, eta oraindik ez dituzte biktimak benetan eta modu eraginkorrez onartu. Biktima batzuekin hain kezkatuta dauden erakundeek beren zuriak alde batera utzi beharko lukete eta, behingoz, Gasteizen 1976ko martxoaren 3an gertatu zenaren memoria historikoa berreskuratu. Erantzukizun penal eta politikoak argitu behar dira. Baita Fragarenak ere.

Juan Mari Arregi

## Jauregi aferak lehendakaria ere ukitzen du zeharka

"**XABIER ARZALLUZEK** ere, Joseba Egibarrek bezala, argi utzi nahi izan du Jon Jauregi aferaren inguruko datuak alderdi barrutik atera direla. Herri Irratiko bere asteroko tertulian jaurti zituen akusazio gogorrok EBBko lehendakari ohiak. Egibarrek, halaber, Joxe Joan Gonzalez de Txabarri eskatu dio Foru Ogasuna "zuritzeko, garbitzeko". Arzalluzen esanetan, jokaldi honekin maiztzeke hauteskundeen ondoren EAJren eta PSEren koalizioa gauzatu nahi dutenek bultzatu dute operazioa, haren ustez Jauregi ahaldun nagusia bada horrelako koaliziorik ez delako izango. Areago, dioenez, Jauregi eraso egin diote, "bere atzean Egibar dagoelako, eta lehendakariaren plana dagoelako".

2003ko udazkenean, EBBren hautaketa prozesuan zehar EAJn izandako liskarren segida da honakoa edo hori da bederen kanpora begira islatzen dena. Barrura begira agian latzagoa ere bada. Dirudienez, dena piztu zen GBBk Joxe Joan Gonzalez de Txabarri diputatu nagusirako hautagai gisa izendatu ez zuenean. GBBk argi utzi zuen egungo ahaldun nagusia ez zela bere konfiantzakoa eta *imaztarrek* ere argi iradoki zuten GBBren erabakia ez zutela gustuko. Alderdia eta bere proiektu politikoa ulertzeko bi molde dira EAJn eta denak adierazten du, irailetik aurrera EBBren hautaketa prozesu berria irekitzen denean, 2003ko une latzak edo latzagoak errepika daitezkeela.

Kontua da lehia horrek gero eta gehiago ukitzen duela Ibarretxe lehendakaria bera. Arzalluzek dio konplot honekin Ibarretxeren aurka ere egin nahi

del; ez du azaltzen zergatik, baina GBB ere beldur da alderdi barrutik lehendakariaren aurka izan daitezkeen mugimenduekin. Bestek beste, horrexegatik ez zuten hautagai hautatu Gonzalez de Txabarri, GBBren ustez ahaldun nagusiak ez duelako publikoki behar bezala defendatu lehendakaria eta bere plana, Euskal Herriaren normalizazio politikoaren etorkizunean giltzarri ikusten duena.

Egibarzaleen sektoreak oso garrantzitsutzat jotzen du lehendakariaren balizko zailtasunen aurrean EAEko hiru diputazioetatik bik bederen -Arabakoak eta Gipuzkoakoak- berau tinkotasunez defendatzea. Zeresanik ez, egoera honek guztiak

oso deseroso jartzen du Ibarretxe lehendakaria.

**EAE-KO ORDEZKARITZA** politikoak ez du Alderdien Legea onartzen; justizia eta oinarrizko eskubide demokratikoen aurkako legea da EAEko herritarren gehiengoarentzat. Berdin pentsatzen da Batasuna eta ezker abertzaleko beste erakunde batzuen jardura politikoa debekatzen duten auzi judizialei buruz. Baina Ertzantzak gogortasun handiz erreprimitzen ditu EAEko gehiengo politikoak defendatzen dituen ezker abertzalearen zenbait eskubide politiko. Eskizofrenikoa da. Ertzantzak joan den larunbatean Bilbon erakutsitako jarrera legezkoa da, baina oinarrizko giza eta eskubide politikoen gutziz aurkakoa.

# XIII.

## On Manuel Antonio Antia

LITERATUR LEHIAKETA URNIETA, 2007

Idazlanak entregatzeko azken eguna:  
martxoak 14

argibide gehiago [www.urnieta.org](http://www.urnieta.org) web gunean



Urnietako Udala